Xenpelarren irudia

Oraintsu Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak Euskaltzaindiaren laguntzaz antolatu dituen hitzaldietan J.A. Arana Martijak, bertso doinuak bertsolaritzaren historian zehar aztertzean, literatur jenero honen urrezko aldia Xenpelar errenderiarrakin hasten zela esan zuen. Juan Francisco Petrirena Rekondo "Xenpelar", Errenderian jaio zen 1835. urteko urtarrilaren 13an eta han bertan hil zen gazterik, 1869ko abenduaren 8an, nafarreriaz kutsaturik.

Aranarentzat, Xenpelarrek, bere gai eta musika ugari erabiltzeaz eman zion holako aberastasun bat bertsolaritzari. Abel Muniategik ordea, gipuzkoako eskola hartzen du gure bertsolaritza honen oinarritzat, gipuzkoarren estiloak Bizkaian ez ezik Lapurdin zehar ere nabari direnez, eta eskola horren estiloaren buru Xenpelar jartzen zuen, gai erabilkeran, neurri eta puntuetan arau nagusiak berak markatu zituenez gero. Gainera, Xenpelarrek, jarrera berri bat ekarri zion gure bertsolaritzari eta literatur mota honen iraupena, eskerrak horri, indartsu heldu zaigu gure egunokarte.

Hortik ikus Xenpelarrek dimentzio berri bat eman ziola bertsolaritzari, bere nortasun bereziaren indarrez.

Xenpelar gazte hil zen, baina ez gure garaitik hain hurbil, gure egungo gizarte arazo bereziekin eta gure gaurko ideekin burua bat egiteko haina, naiz eta bere garaian, karlisten bi gerrateen tartean, orduko gizarte arazoetaz biziki arduratu eta horietaz kantatu bazuen ere. Gure garaian eta gure adinekoentzat, gezurra badirudi ere, euskal gauzak berez ziren debekagarriak diktadura denboran. Horregatik, 1969an, Errenderiako elkarte bati Xenpelarri bere heriotzaren mendeurrenez omenaldi bat eratzea gogoratu zitzaionean eta hortarako aldez aurretik baimenak lortzeko jestiogintzan hasi, Goberni Zibiletik Errenderiako Udalari Xenpelarren politika joeraz informeak eskatu zituzten. Hogetahamaseiko gerran partaide izan balitz bezala.

Asmo haietan parte izan zuen bere itzal onagatik guziontzat hain errespetagarria zen Antonio Valverde "Ayalde" zenak, eta honek proposatu zuen kultur etxea eraikitzea, Jurgi Oteitzaren diseinuz. Gainera, gure egunotako artista ospetsu honek berak markatu zezala kultur etxe horren bete behar nagusia. Horrela ba, Oteitzaren ustez, Errenderiako Foru Plazan izango zen kultur etxeak, egungo herri kulturan oinarritua behar zuen, kalera begira eskaparate handiak idekiz, bertan Euskal Herriko berriak jasoko zituztena, bertsolari ekintzetatik hasi eta Arte erakusketetara arte, egunean egungo kirolen, ikerketen eta gainerako kultur ekintza guzien berri emango zena, herriak begien bistan izan zezan gertakizunen eta era guzietako ekintzen berria, eta han bertan, musika eta plastika arteen aretoaz aparte ikastoletako andereñoentzat eskola esperimentala, didaktika berrien saioetarako. Beraz, kultur etxe horrek bi solairu izango zituen, bata bestearen gainean, plazaren errektangulua osatuz, eta bere alde batean, plazaren burualdera, Xenpelarren estatua eraiki, zutik eta luze, bere irudiz herriaren kultur etxe hori babesteko. Asmo ederra, baina denbora haretan aurrera eraman gaitza. Horregatik, oztopoak handik eta oztopoak hemendik, Xenpelarren politikaz filiazioa eskatzen zuten haiek eta Errenderian bertan haien zerbitzuko zirenek desegin zuten asmo hura.

Plazan jartzeko zen Xenpelarren irudi harek, eraiki izan balitz, zazpi metro goruntza izango zituen, hormigoiz ondo armaturik. Irudi ederra gure kulturaren zaintzailea.

Gaur ordea, 1969. urte hartan Oteitzak buztinez modelatu zuen irudi hura, Errenderiako Foru Plazan jartzerik izan ez zuena, 35 zentimetro neurrian brontzez urturik (fundituri), zilarreztatua eta Markinako harri beltza oinarri duela, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusirako lehen saritzat dugu. Trofeo hoberik ba ote? Ekintza guzietatik zerbait gelditzen dela esan ohi da, eta alde horretatik zoriontsu dira sari hortaz jabetzen diren bertsolariak.

Juan SAN MARTIN

En reiteradas ocasiones hemos valorado a Xenpelar como principal bersolari de la historia, cosa que han confirmado diversos conferenciantes durante el ciclo que ha tenido lugar estas dos últimas semanas en San Sebastián.

J.A. Arana Martija afirmó que la edad de oro del bersolarismo comenzó con el renteriano Xenpelar (1835-1869), quien empleó un rico y variado repertorio de temas y música, para darle una nueva dimensión a esta modalidad literaria tan nuestra. Abel Muniategui, por su parte, reafirmó que la gran escuela del bersolarismo giraba en torno al estilo guipuzcoano y en su cúspide habría que situar a Xenpelar, que fijó las reglas fundamentales del estilo de esa escuela. Es imposible mayor elogio para un hombre, sobre todo viniendo de dos vizcaínos de las letras euskaras, ambos licenciados en Derecho, el primero musicólogo y el segundo bersolari y crítico de este género literario.

Xenpelar murió joven, pero no en fecha tan reciente como para verse involucrado con ideas y preocupaciones de nuestros días. Pero durante aquellos años de un próximo pasado en los que todo lo relacionado con la cultura vasca levantaba suspicacia, una entidad renteriana pretendió rendir homenaje al ... genio en el centenario de su fallecimiento, previamente a ser autorizado, del Gobierno Civil solicitaron al Ayuntamiento de Rentería la filiación política de Xenpelar.

Justo por entonces, intervino el hombre que por su bondad se hacía respetar por todos, Antonio Valverde "Ayalde", quien propuso la idea de erigir una casa de cultura, diseñada nada menos que por Jorge de Oteiza. Pero, además, con la proposición de que este genio de nuestros días marcara el esquema de las actividades a desarrollar en dicho centro cultural, ubicado en la Plaza de los Fueros. Y éste pretendía, ... acoger en una escuela de cultura popular, ... deada de escaparates donde se expusieran los aconteceres cotidianos de Euskalerria, desde actividades de bersolaris y pruebas ... hasta exposiciones de arte y una escuela experimental donde se desarrollarían didácticas para andereños. Y a la cabecera del edificio, al mismo borde de aquella plaza, levantar una gran estatua de hormigón, de siete metros de alto, con una elevada talla representando la figura de Xempelar. Naturalmente que no se llevó a efecto. El horno no estaba para bollos. No eran tiempos para tal logro.

Hoy, aquel modelo en barro, que se ... para erigir el monumento a Xenpelar, gracias a la generosidad de Jorge, nos sirve de figura para premiar al campeón de las contiendas ... nales. Un inmejorable trofeo fundido en bronce y plateado, de 35 centímetros de altura, y montado sobre una peana de mármol negro de Marquina. De toda acción, siquiera ... consuelo, siempre queda algo, y en este caso concreto los afortunados son los bersolaris que alcancen este premio tan codiciado.

Harginak

Euskandunak, Erdi Aro danik hargin onak bezala ezagutuak diradé. Hunela peninsula iberikoan bizibe-hizkera berheizietan bethi euskal ethortiko hitzak anhitzak dira. Hunelako hizkuntzak adibidez Asturietan ditugu. Beraz, ez da harritzekoa, baldin-eta 1717/an gizarte philanthropikoa izaiteko asmoak sorthu zen hargingo berrian, Scotian izanarren, euskarazko hitzen bidez symbolismo horren argitzeko bidea ba dugu. Huntaz gainera Henry Guiterrek erakhutsi deraukun bezala, Scotiaren lehen egoiliarrak ez ziren skotoak gardunak (caledones) baizik eta hauk euskaldunen askaziak ziren.

Halakotz, Hargingoan agerten diren symbolismoak argitzekotz, baldin eta sumertarrek irazteko tekhnea asmatu zutenean, hori berori praktikan egiaztatzeko erabili zituzten methodoak, geuk ere, gure hautemaite huni applikatzen ba deraukogu, laister fruktu onak edukiko dituzkegu.

Lehenik, caledones **gardunak** zirela ahantzi behar ez genuke. Hortakotz Scotiaren harmenharria, **gardu (khardu)** *bat da. Huntara ere Harginen Baitha guztieran toki importantenean, bethi, bortz punkten izar bat dago, garrak jaurtikitzen. Izar huni hau frantsesez "étoile flamboyante"-a dela erraiten da, beraz euskaraz izen hunen itzulpena* **gardun izarra** dela erran dezakegu, hunen bebaiotzekotz izar hunen erdian **G** bat ezarten da. Izar hunen arauera "épée flamboyante" baten symbola ere, Harginen Baithetan agerten da. Izar hunen arauera "épée flamboyante" baten symbola ere, Harginen Baithetan agerten da, Hunen izena "gardun ezpata" dateke, zeintan **spathe khaldeike** edo **ekhousa phloga**, estalita egon diteken.

Gardun rituaren Hargingoaren Baithetan, bethi sarreran bi zuthabe dagotza. Kion hauien izenak JAKIN eta BO'OZ direla erraiten da. Dudarik gabe, bi hitz hauietan bi euskarazko hitz dugu: **Jakintza ta Bihotza**. JAKIN zuthabea, **arra** dela erraiten dute, eta **bo'oz** (bihotz) **eme**. Jakintzaren kionaren bidez, **jainkoata zerua** symbolizatzen direla erraiten da Hargingoaren irakaskintzetan, eta **bo'oz** zuthabearen bidez **hilargiaren azpiko mundua**. Eta hunen symbolizatzekotz, huntaz gainera, **Jakin** 8 (zortzi) bat dela erraiten da, eta **Bo'oz**. 7 (zazpi) bat dela. Hemen ere berriro sumertarren irazteko methodua erabiltzen ba dugu, laister ZAZPI = AZPI = mundua dela ikhus dirogu, eta ZORTZI = ORTZI = jainko dela.

Harginek, "enfants de la veuve" direla dioskute, phrasi hau' euskaratzen ba dugu "Alhargunsaren semeak" dugu, eta izen hunen azpian "Al Hargintzaren semeak" dugu.

Harginek sekta philanthropiko huntan, artizarien gizarteez gainera, bertze gizarteen mythologia onhartu ukhan dute. Hunelakoa ARROSA GURUTZekoak lirateke. Bainan euskarazko izen hunen azpian erraz ikhusiko dugu nola ARROSA = HAROTZA = ARROTZA den, eta GURUTZ hitzean iGURTZ-i aditzaren forma bat eduk dirogun. Halakotz, ARROSA-GURUTZEA HAROTZ-IGURTZIa izan liteke, eta nola **igurtzi** verboa graikara:. **khristós** bait da, halatan ere hark "khristo harotza" symbolizatzen duke.

Erdi-Aroan Frankaldean artizarietan hirur lagunarte profesional zegozen. Lehena "Enfants de Maitre Jacques", bigarrena "Enfants du Père Soubise" eta hirurgarrena "enfants de Salomón". Jacques izenean izen batzu bildu eta elkhartu dira, gaztelaraz adibidez: Jacobo, Jaime, Santiago, Jago, Diego... eta euskaraz dudarik gabe: Jakue, Jakes eta Didako. Eta azken izen hau behar bada ainigmaren giltza izan diteke, zerenneta graikaraz: **dakos = phizti salbaia** bait da, bai eta **didakhe = irakaskintza** ere. Hunen araura Iondoni Didakoren lagunartean harginen goitizena: **otsoa**, eta harotzena: **ora**. Bigarren lagunartea ttipiago zen, bainan haren artizariak **zurginak** ziren, batez ere zur-biziaren ephaileak.' Beraz hemen **Sou-bisse** delako forman "**zur-bizi**" hitza dugu. Hirugarren lagunartean harginak "étrangers" zirela erraiten da, beraz: **arrotzak**, eta hemen kanpotarrak izan-gabe, hitz hunen azpian "harotzak" eskutatzen zaiku.

Erran dugun bezala, Harginen gizartearen ethorkiaren erro bat, Erdi-Aroko artizarien lagun-arteetan emaiten da, bainan bertze ethorkierro bat, **zalduntzaren** ordenetan. Dudarik gabe Frankaldean sorthurikako Templu-zalduntzari buruz askotan mintzo da, bainan, nola Hargingoa, ethorkiz garduna dela erraiten den, halatan ere haren ethorkiaren erro bat Robert Brucek gora-behera 1310/n fundatu zuen zalduntza-ordenean bilhatzen da. Orden hunen izena frantsesez "**l'ordre du Chardon et de la Rue**" da, beraz euskaraz "Garduaren eta Borthusaiaren Ordena", eta izen hunen azpian, dudarik gabe "Gardunen eta Borthuzaien" ordena estaltzen da.

Harginen hizkera estalian bethi, Alkhimisten hizkuntzan bezala hitz baten azpian edo phrasi baten azpian, bethi bertze hitz bat, edo phrasi bat estaltzen da. Hunen araura ezagutzen da "Garalu Sainduren" legenda, batzuentzat **garalu = gradale** bat zen, bertze personentzat **esmeralda** bat. Berhain legenda hunen arauera, **garalua** mendi salbaian zaintzen zen. Dakigunez Urduinaren atzean Mendi Salbai izeneko mendilerro bat dago. **Alu** hitzaren erran-nahia, bikhoitza da. Lehena emaztekien sexua izan diteke eta bigarrena: **alua = hiria**, hau da: **elua**. Zentzu huntan **Garalu** mendietan nunbait legoken hiri bat lizateke.

Hala-here, zentzu erotikoan, Indiko Tantrismoarekin lothuta egon liteke, zeren irakaskintza estali huntan, Munduko mysterio guztiek, aluaren (yoniaren) adorazionean beren deslotzeko gakhoa eduk bait lezakete. Alta, Borthuetara ekharri zutela, legendan erraiten da, zein tokitara, eta **mendi salbaia** non dagoen, zehaztu gabe.

Bainan hargingoaren hizkuntza mysteriotsu hau, Eliza katholiko askotan, ia guztietan ikhus diteke. Huntara, adibidez Florentziako Baptisterioan, Del Fior kathedralaren aurrean, lekhu askotan zortzi-gonu batzu ikhusten dira, non zortzi-gonu hauk, bethi "**Jainkoa**" symbolizatzekotz agerten diren.

Hargingoaren legenda hauk, gaurregunean gutzat, guztiak, farregarriak izan ditezke, bainan hauk, zein epokhetan zabaldu ziren, eta zeintzu heien helburu humanistak izan ziren nehoiz ere ahantzi behar ez genuke. Huntara hamazortzigarren mendeko gizon ospatsuenak lagunarte philanthropiko huntan sartzen ziren, tolerantziaren eta liberaltasunaren izpiritua zabaltzekotz. Zentzu huntan, gaurko politikan, Hargingoaren fruktuak, systema demokratikoak liratezke, eta batez ere gizon guztien eskubideen errespetua. Frankaldeko Iraultzaren **slogana** —Liberté, Fraternité, Egalité— Hargingoaren Baitha baten slogan zen.

Federico KRUTWIG SAGREDO

La palabra vasca **hargin** *sirve tanto para denominar al* **picapedrero** *como al* **masón**. *Sabido es que entre los ritos que se practican en la sociedad filantrópica, fundada en Londres en 1717, hay uno, el más conocido, especialmente en Francia y los países latinos, llamado "rito escocês antiguo y aceptado". A nadie le extrañará que en este rito encontremos símbolos cuya clave hallamos en el vascuence, sí como ha sido demostrado por H. Guiter, la lengua primitiva del Reino hoy llamado de Escocia, a donde llegaron por primera vez los primeros escoceses en el siglo VI de nuestra era, pero tierra que no ocuparon estos intrusos hasta el siglo XII fue pariente cercano del euskara. Nos bastará para interpretar este simbolismo aplicar el mismo sistema que usaron los sumerios para reproducir la palabra, especialmente los términos abstractos, cuando inventaron el arte de la escritura.*

En primer lugar la propia Escocia está simbolizada en su escudo por un cardo, palabra que en vasco es **gardu** *o* **khardu** *y que por lo tanto está por* **gardun** *(=caledonio). En toda Logia másonica hay como símbolo central un pentaclo flameante con una letra G en el centro, llamado "la estrella flameante". Como en euskara* **flameante** *se dice* **gardun** *es claro que* **gardun izarra** *significa* **estrella flameante**, *con que encubre: estrella caledonia.*

A la entrada de toda Logca masónica se encuentran dos columnas ... las que se dice que la 1ª se llama JAKIN y la segunda BO'OZ. A ... palabras los hebraistas se han ... ñitado para buscarles orígenes ... cos. Que **Jakin** *significa Ciencia ...* **Bo'oz** *significa* **Bithoz = corazón** ... *explica el que se diga que la columna* **Jakin** *es masculina y la ...* **Bo'oz** *sea* **femenina**, *y que además ... diga que* **Jakin** *significa el cielo ...* **bo'oz** *la* **tierra**, *puesto que ... están además representadas por un ... (***Jakin***) y por un 7 (***bo'oz***). En efecto, según la manera sumeria, tendríamos que en vasco* **ocho** *se dice* **Zortzi** *y ... que simboliza* **ORTZI**, *... lo tanto simboliza ... y siete se dice* **ZAZPI** *y simboliza* **AZPI** *(el bajo mundo, el mundo ... blunar). Los masones dicen que ... son* **"los hijos de la viuda"**, *lo que traducido al euskara da: "***Alhargunsaren semeak***" que encubre "***Al Hargintzaren semeak***". Se afirma que ... masonería escocesa nació en ... 1310, cuando Robert Bruce, en ... la orden del "***Cardo y la Ruda***" ... sabemos que en vasco esto se ... "Gardua ta borthusaia" tenemos ... la primera palabra simboliza ... "***Gardu = gardun = caledonio***" y la segunda* **Borthusai = ruda** *pero* **Borthu-zai = guardia de los Pirineos** *(o de ... montañas), puesto que* **Borthu** *es el nombre vasco de los Pirineos.*

Entre las cofradías que integran ... la Masonería se cita la de ... **Rosa + Cruces** *de quienes ... sabe. Si traducimos esto al ... vasco tenemos ARROSA-GURUTZ ... donde* **Arrosa** *está por HAROTZA ... ARROTZA, de las que* **harotza** *significa:* **herrero** *o* **carpintero**, *y ... RUTZ encontramos ... GURTZ-i =* **ungir**, *por lo ... ARROSAGURUTZ está por* **herrero o carpintero ungido**. *Como ...* **ungido** *(es decir,* **igurtzi***) se dice en griego* **khristós**... *también podría significar el "***cristo carpintero***". Tengamos además presente que una de las ... fraternidades de artesanos medievales francesas se llamaban: "Enfants ... Salomon" y se decían "compagnons étrangers", sabiendo que* **arrotz** *significa los harotzak y también ... fácilmente se comprende la ... ción.*